

**PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZERGA-KUDEAKETA	Iraupena	90
		Berariazkoa	
Kodea	UF0315		
Lanbide-arloa	ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA		
Lanbide-eremua	Administrazioa eta ikuskapena		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Kontabilitatea eta fiskalitatea	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kontabilitate-kudeaketa	Iraupena	90
	Kontabilitate-sistema informatizatu bat instalatzea eta kontrolatzea.		60

**A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC 0231\_3 KONTABILITATE- ETA ZERGA-KUDEAKETA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 (BEZari dagokionez) eta LB4 lanbide-burutzapenekin

**B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**
**Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak**

A1: Enpresaren jarduera ekonomikoa zergapetzen duten zergen kuota likidagarriak kalkulatzea, eta haren aitortzen-likidazioei dagokien dokumentazio gutzia prestatzea, indarrean den merkataritza- eta zerga-araudia aplikatuz.

EI1.1 Indarrean den zerga-legeria identifikatzea, eta zerga-mota bakoitzari aplikatzekoak diren arauak azaltzea.

EI1.2 Zuzeneko zergapetzea eta zeharkako zergapetzea bereiztea, eta bakoitzean sartzen diren zerga nagusiak zehaztea.

EI1.3 Pertsona fisiko diren zergadunentzat aplikatzekoak diren errendimenduen estimazioaren araubideak bereiztea.

EI1.4 Oinarrien estimazioaren zerga-araubide bakoitzaren eskakizun formalak deskribatzea, abantailak eta eragozpenak zehaztuz.

EI1.5 BEZaren subjektu pasiboari aplikatzekoak zaizkien araubideak bereiztea.

EI1.6 Kontabilitate-emaizta eta zerga-emaizta bereiztea, eta biak sozietate-zergaren kalkuluan uztartzeko prozedurak zehaztea.

EI1.7 Zergak aitortzeko eta likidatzeko epeak eta prozedurak zehaztea.

EI1.8 Merkataritza-sozietate baten egoera islatzen duen kontabilitate- eta zerga-informazioa emanda, hauxe eskatzen da:

- Sozietate-zergaren kuota diferentziala kalkulatzea, eragiketa hauek eginez:
- Diferentzia iraunkor eta behin-behinekoengatikoko doikuntzak.
- Zerga-oinarria kalkulatzea, aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboan konpentsazioa eginez.
- Kuota osoa kalkulatzea.
- Kuota likidua kalkulatzea, dagozkion kenkariak eta hobariak aplikatuz.
- Kuota diferentziala kalkulatzea, atxikipenak eta konturako ordainketak kenduz.
- Sozietate-zerga aitortzeko eta likidatzeko dokumentuak prestatzea.

EI1.9 Banako enpresaburu baten egoera islatzen duen kontabilitate- eta zerga-informazioa emanda, hauxe eskatzen da:

- Enpresari aplikatzekoa zion zerga-oinarriaren estimazio-araubidea identifikatzea.
- Estimazio-araubide objektiboari eta zuzenekoari dagozkien zerga-betebeharrak zehaztea, eta enpresari aplikatzekoa zion sistemaren arabera ordaindu behar den kuotan zer eragin duten ezartzea.
- BEZ likidagarriaren kontzeptuak kalkulatzea, dagozkion kontabilitate-idazpenak eginez.
- PFEZren kuota diferentziala kalkulatzea.
- BEZa eta PFEZ aitortzeko eta likidatzeko dokumentuak prestatzea.

A2: Lan bat egitean zorrotz eta doitasunez jardun behar dela jakitea, eta enpresak garapen ekonomikoan eta sozialean duen garrantzia baloratzea.

EI2.1 Enpresak garapen ekonomikoan zer garrantzi duen azaltzea.

EI2.2 Zerga-betebeharrak ez betetzeak edo haietan zehaztasun faltak izateak enpresari zer ondorio dakartzkion deskribatzea.

EI2.3 Enpresa baten zerga-datuak emanik, datu horietan akats batzuk daudela, honako hauek eskatzen dira:

- Egindako akatsak azaltzea.
- Enpresarentzat zer ondorio izan ditzaketen analizatzea.
- Enpresaburuaren ardura baloratzea.

## Edukiak

### 1. Tributuen Lege Orokorren sarrera

- Zerga-antolamenduaren xedapen orokorrak. Sarrera.
  - Zergak: Kontzeptua eta klaseak. Zerga-arauak.
  - Zerga-betebeharrak.
  - Zerga-obligaziodunak.
  - Zerga-betebeharra kuantifikatzea.
  - Zerga-zorra.
  - Zerga-zorra azkentzea.
- Zerga-prozedurak.
  - Kudeaketa-prozedura.
  - Ikuskatze-prozedura.
  - Zerga-bilketarako prozedura.
  - Zehatze-prozedura.
  - Berrikuste-prozedura administrazio-bidean.

### 2. Sozietateen gaineko zerga

- Diferentzia iraunkor eta behin-behinekoak. Kontzeptua. Motak. Kalkulua.
- Zerga-oinarri negatiboaren kontzeptua.
  - Kalkulua eta inplikazioak.
  - Konpentsazioak. Aldiak.
- Zerga-karga geroratzea. Denbora-epeak. Legeak.
- Kontabilitatearen eta fiskalitatearen arteko desadostasunak.
  - Kontabilitate-araudia eta zerga-araudia.
  - Bi araudiak bateragarri egitea.
  - Doikuntza-idazpenak.

### 3. Balio erantsiaren gaineko zerga

- Zergapeko egitatea. Salbuespenak. Jarduera-lekua Zergapetua egotea eta zergapetua ez egotea. Salbuespenak. Aplikazio-eremua.
- Zerga-oinarria. Subjektu pasiboa.
  - Zenbateko fakturatua.
  - Ondasun higiezinetan barne ez hartzeko kasuak.
  - Subjektu pasiboa. Subjektu aktiboa.
- Kenkariak eta itzulketak.
  - Kenkariak izateko kasuak.
  - Kenkariak ez izateko kasuak.
  - Hainbanaketa-erregela.
  - Esportatzaileei itzultzea.
  - Konpentsatu beharreko aitortzenak.
- Zerga-tasak. Normala. Murriztua. Supermurriztua. Baliokidetasun-errekargua. Tasa bereziak.
- Zerga kudeatzea eta likidatzea.
  - Nahitaez aitortu behar dutenak.
  - Hiru hileroko aitortzenak.
  - Urteko aitortzena.
  - Zerga ordaintzea.

### 4. PFEZ.

- Kontzeptu orokorrak. Definizioa. Lurralde-esparrua.
  - Aitortu beharreko errentak.
  - Errenta zergagabeak eta errenta ez-zergapetuak.
  - Aitortzena nahitaez egin behar dutenak.
  - Zerga-aldia eta sortzapena.
- Zerga-oinarria.
  - Lan pertsonalaren etekinak.
  - Kapitalaren etekinak.
  - Enpresa-jardueren eta lanbide-jardueren etekinak.
  - Ondare-aldakuntzak.

- Errenta-egozpenak.
- Oinarri likidagarria. Murrizketak.
- Kuota osoa. Kalkulua. Kenkariak.
- Zerga-zorra. Atxikipenak eta konturako ordainketak.

**5. Enpresa txikientzako zerga-araubidea**

- Baldintzak. Pizgarri fiskalak Kenkari bereziak.

**C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa